Elduaingo Udala
Gipuzkoa

ELDUAINGO HERRI BIDEEN ASFALTOZ ZOLAZTATZEKO PROIEKTUAREN OBREN ADMINISTRAZIO-KONTRATUA ESLEITZEKO BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ.

1. KLAUSULA. Araubide juridikoa

Egingo den kontratua obra-kontratu administratiboa izango da, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren –2017ko SPKL–, 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Kontratu hau administratiboa da, eta baldintza-agiri honetan zehatz-mehatz jasota ez dagoen guztian honako arau hauek arautuko dute:

- Kontratazio Publikoari buruzko eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua.

- Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Gauzatze Araudia (EB), kontratatzeko dokumentu europar bakarraren formulario normalizatua ezartzen duena.

- Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa –2017ko SPKL– (EDL 2017/226876).

- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena -APKLAO–.

Kontratuak honako hauek ere izango ditu kontuan:

a) Lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden lege-xedapenak, arauak eta bestelako xedapen konbentzionalak.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak ezartzen duen eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabileraren normalkuntzari buruzkoak eta berau garatzen duen araudiak arautzen duten hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araudia.

Gainera, zuzenbide administratiboaren arloko eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuaren arloko gainerako arauak ere ezarriko dira.

2. KLAUSULA. Kontratatzeko gaitasuna

Kontratu hau esleitu ahal izango zaie kontratatzeko ahalmen osoa duten, SPKLren 85. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeko ezarritako bateraezintasunik edo debekurik ez duten eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duten pertsona naturalei edo juridikoei, espainiarrei edo atzerritarrei, indibidualei edo aldi baterako enpresa-elkartea eratuta aurkezten direnei.

Gainera, enpresa esleipendunak izango dira kontratuaren xedearekin erlazio zuzena duten jarduerak edo helburua gauzatzen dituzten eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar adina giza baliabide eta material dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Enpresariek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren atzerriko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan xedatutako baldintzak ere bete beharko dituzte.

3. KLAUSULA. Xedea

Kontratu honen xedea da Elduaingo herri bideetako kalteturik dagoen eremuetan zoladura berriztatzea.

Hori guztia, Eneko Iturbe Rekondo Arkitektu Teknikoak burututako obra proiektuaren arabera -SPKL-ren 13. artikuluak dioen bezala- zeinak kontratuaren bidez asetzen dituzten behar administratiboak eta kontutan izan beharreko bestelako faktoreak jasotzen dituen. Proiektu horrek, SPKL-ren 233. artikuluak aurreikusten dituen dokumentu oro jasotzen ditu, bere lanketan SPKLEO-ko 124tik 134-rarte doazen artikuluen xedatutakoa betez.

Kontratuaren objektuaren ezaugarriak hauek dira:

- Objektua: ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ BER ZOLAZTATZEKO OBRAK.

- CPV kodea: 45233222-1

- Obrak burutzeko epea: 2 aste (14 egun natural).

4. KLAUSULA. Kontratuaren prezioaren balio zenbatetsia

2017ko SPKLren 101.8 artikuluari jarraituz, kontutan hartuko den prezioa egingo diren lanei dagokien aleko prezioa izango da, esleipendunak eskainitakoa.

2017ko SPKLren 101.1 artikuluan (EDL 2017/226876) aurreikusitako ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia 65.822,93 eurokoa da (BEZ sartu gabe): 55.313,39€ (exekuzio materiala), 10.509,54€ (gastu orokorrak eta etekin industriala).

Proiektuaren lizitazio-aurrekontua guztira 65.822,93 euro (gehi BEZa) eta 79.645,75 euroko kopururaino igotzen da BEZa barne.

5. KLAUSULA. Kontratazio organoa

SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriak arautzen duenaren arabera, kontratu honetako kontratazio organoa Plenoa izango da.

6. KLAUSULA. Finantzaketa.

Kontratua betetze aldera, Udalak onartuko dituen betebehar ekonomikoei arreta emateko kreditu egoki eta nahikoa dago. Ildo horri eutsiz, hurrengo aurrekontu-izendapen hau du: 1-601.01.454.00.2023.

7. KLAUSULA. Esleitzeko prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, eta kontratuaren tramitazio sinplifikatuari aplikatzekoak zaizkion arauei jarraituko die, 2017ko SPKLren 159.1 artikuluan aurreikusitakoari lotuta eta Baldintza Plegu hauen 9. atalean zehazturiko irizpide ezberdinen baitan egingo da.

8. KLAUSULA. Proposamenak aurkeztea

8.1.- Proposamenak aurkezteko bitartekoak eta epea

2017ko SPKLk hamabosgarren xedapen gehigarrian zehaztutako baldintzekin bat, proposamenak **esklusiboki bitarteko elektronikoak erabilita** aurkeztuko dira **20 egun naturalen** buruan, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Dena den, egun horretako 23:59 baino lehen egin beharko da.

Proposamenak, data enkriptatzea eta baliozkotzea barne, elektronikoki aurkezteko informazioa eta zehaztapen teknikoak Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataforman (www.contratacion.euskadi.eus) ostatatuak daude.

Erabiltzailearentzako Arreta Zentroa

- Telefono-zenbakia: 945 016 298.
- Interneteko helbidea: http://www.contratacion.euskadi.eus
- Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus (lizitazioa elektronikoki egitea atalaren barruan)

8.2.- Pleguetara eta gainerako dokumentazio osagarrira iristea

Pleguak eta gainerako dokumentazio osagarria Berastegiko Udalak bitarteko elektronikoak erabiliz kontratatzailearen profilean ipiniko du. Ildo horri eutsiz, atzipena, aske, zuzenean, doan eta guztia lortzeko egin ahal izango da lizitazioaren iragarkia argitaratzen den egunetik.

8.3.- Konfidentzialtasuna

2017ko SPKLk 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, Berastegiko Udalak enpresaburuek eskuratutako informazioa ez du zabalduko, eskaintza aurkeztean horiek konfidentzialtzat jo badute.

Konfidentzialak izango dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo merkataritza-sekretuak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lehiak, bai lizitazioaren prozeduran, baita ondoren ere, faltsutzeko erabil dezakeen edozein informazio.

Nahiz eta kontratazio-organoak eta mendeko zerbitzuek konfidentzialtasuna bete behar duten, adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzaren eduki guztira ezingo da zabaldu.

Halaber, sinatutako kontratuetan konfidentzialak ez diren alderdiei dagokienez, konfidentzialtasunaren eskakizunak ez du jendaurrean zabaltzea saihestuko. Dena den, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak Datu Pertsonalak Babesteri buruzkoak, xedatutakoa errespetatuko da.

Pleguetan edo kontratuan konfidentzialtzat jo den informazioari buruz kontratistak kontratua egikaritzen ari den bitartean atzipena izanez gero, izaera konfidentziala errespetatuko du. Era berean, izaera kontuan hartuta, modu horretan tratatu behar bada, arestian azaldutakoa beteko da. Betekizuna informazioa ezagutzen denetik aurrera bost urtez mantenduko da.

9. KLAUSULA. Proposamenen edukia

Proposamenak **artxibo elektroniko bakarrean** aurkeztuko dira, eta honako agiriak jasoko ditu:

a) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazteko.

Eskaintzarekin batera aurkeztuko den sinatzailearen erantzukizunpeko adierazpenean honakoak adieraziko dira: eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaria dela, behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo, hala badagokio, beharrezkoa den sailkapena duela; jardueran aritzeko beharrezko baimenak dituela; ez duela kontratatzeko debekurik; eta 2017ko SPKLren 75.2 artikuluan jasotako konpromisoa badagoen.

Gainera, enpresa atzerritarra bada, erantzukizunpeko adierazpenean jasoko da Espainiako foruaren mende geratzen dela.

Erantzukizunpeko adierazpena agiri honen I. Eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko da.

SPKLren 69.3 artikuluan ezartzen denaren arabera, eta lizitazioaren eraginetarako, aldi baterako elkarte bat eratuta esku hartu nahi duten enpresariek elkartea eratzen dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, bai eta, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa ere.

Hainbat enpresak aldi baterako enpresa-elkartea sortuta parte hartzen badute, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak egiaztatu beharko du bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena eta aurkeztu beharko du dagokion erantzukizunpeko adierazpena.

Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Erantzukizunpeko adierazpen hori sinatuta egongo da eta dagokion identifikazioa izango du.

b) Automatikoki baloratuko diren irizpideak, Agiri honetako 9. klausularen arabera.

c) Proposamen ekonomikoa, agiri honen II. Eranskinean jasotako proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera eginda eta sinatuta.

Proposamenak aurkezteko **hogei egun naturaleko** epea izango da, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Nahikoa izango da kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratzea. Eskaintza aurkezteko behar den dokumentazioa baliabide elektronikoen bidez eskuratu ahal izango da, edozein unetan, zuzenean, doan eta osorik, iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera kontratatzailearen profilean: www.elduain.eus

Kontratazio organoak edo mahaiak hautagaiei edo lizitatzaileei frogagiria guztiak edo horietako batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die baldin eta adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudela uste badute edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa bada, eta, nolanahi ere, kontratua esleitu aurretik.

Enpresariak ez du frogagiririk edo datuen agiri bidezko frogarik aurkeztu beharrik izango kasu hauetan: Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazionalean badago, enpresaren espediente birtual batekin, agiriak biltegiratzeko sistema elektroniko batekin edo aurre kalifikazioko sistema batekin, eta horiek doan eskura baditzakete adierazitako organoek.

2017ko SPKLren 140. artikuluan gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez egoteari buruz jasota dauden eskakizunak aldi berean bete beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean, eta kontratua burutzen den momentuan mantendu behar dira.

10. KLAUSULA. Behin-behineko bermea

2017ko SPKLren 159.4.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, lizitatzaileek ez dute behin-behineko bermea eratu beharrik izango.

11. KLAUSULA. Esleitzeko irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena erabakitzeko balorazio automatikoko hainbat esleipen-irizpide izango dira kontuan,

Eskaintza onena kalkulatzeko honakoak izango dira kontuan:

1.- Eskainitako preziorik onena: Puntu guztietatik gehienez ere **75 puntu** emango zaizkio lizitatzaileak eskainitako preziorik onenari, eta balorazioa Udaleko Zerbitzu Teknikoek egingo dute honako formula matematikoari jarraituz:

- Lan bakoitzaren prezioa 100 puntutik 75 puntura arte puntuatuko da.

- Lan bakoitzaren eskaintzarik onuragarrienak 75 puntu lortuko ditu, eta gainerako eskaintzak alderantzizko proportzioan baloratuko dira, honako formulari jarraituz:

75 x eskaintzarik onuragarriena / baloratzeko eskaintza = eskaintzaren puntuazioa.

2.- Berme epea: Gehienez ere **25 puntu**

Behin betiko berme epea enpresa esleipendunak eskainitakoa izango da, baina ezin izango da urte bat (urte 1) baino gutxiagokoa izan inondik inora eta obrak jasotzeagatiko aktaren sinaduratik zenbatzen hasiko da. Lizitatzaileak, urte bateko gutxieneko bermea eskaini ahal izango du, honen ez duelarik balorazio gehigarririk edukiko, edota epe gehiago eskaini ahal izango du, hau baloratu egingo delarik lizitatzaileak eskainitakoaren epearen arabera, aukera hauen artean:

1 AUKERA: Urte bateko (1) berme epea: 0 puntu.
2. AUKERA: bi (2) urteko berme epea: 10 puntu.
3. AUKERA: Hiru (3) urteko berme epea: 15puntu.
4. AUKERA: Lau (4) urteko berme epea: 20 puntu.
5. AUKERA: Bost (5) urteko berme epea: 25 puntu.

12. KLAUSULA.- Prezioak berrikusteko araubidea

Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta 2017ko SPKLren 103. artikuluan, sektore publikoko kontratuetako prezioak berrikusteko baldintzak arautzen dituenean, xedatutakoari jarraituz, kontratu honi ez zaio aplikatuko berrikuspen hori.

13. KLAUSULA. Kontratazio-mahaia

Hauek izango dira kontratazio-mahaiko kideak:

a) Presidentea: Ainara Otaegi Larrarte.

b) Mahakideak:

- Borja Izaskun jauna.

c) Idazkaria: Maria Pilar Garmendia Miguel anderea.

14. KLAUSULA. Administrazioaren eskumenak

2017ko SPKLren 190. eta 191. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz, hauek dira kontratazio-organoaren eskumenak:

a) Kontratua interpretatzea.

b) Kontratua betetzean sor daitezkeen zalantzak erabakitzea.

c) Interes publikoaren alde kontratua aldatzea.

d) Kontratua bertan behera uztea eta horren eraginak zehaztea.

15. KLAUSULA. Dokumentazioa kalifikatzea eta proposamenak irekitzea

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean eratuko da kontratazio-mahaia, eta proposamenak irekiko ditu eta horietan jasotako administrazio-agiriak kalifikatuko ditu.

Berastegiko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako egunean, lekuan eta orduan irekiko dira eskaintzak.

Ekitaldi publikoan irakurriko da emaitza.

Ekitaldi publikoaren ondoren, eta saio berean, honako hauek egingo ditu mahaiak:

1.- Agirian ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, halakorik badago, eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu.

2.- Kontratua puntuaziorik onena lortu duen hautagaiari esleitzea proposatuko du.

3.- Puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasi eta **7 egun balioduneko** epean honako agiriak aurkez ditzala:

a) Nortasun juridikoa egiaztatzeko agiriak: Enpresari indibidualek: NANaren kopia; pertsona juridikoek: erakundea eratzeko eskritura edo eraketa jasotzen duten agiriak eta erakundearen estatutuak, Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta daudenak.

b) Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak: Proposamena ez badu lizitatzaileak sinatzen, proposamena sinatzen duenaren edo dutenen aldeko ahalordea aurkeztuko da ahalordedunaren edo ahalordedunen Nortasun Agiri Nazionalaren kopiarekin batera.

c) Zerga betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak.

d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak.

e) Ekonomia jardueren gaineko zergaren alta, dagokion urtekoa edo azkeneko ordainagiria. Nolanahi ere, zerga horren matrikulan ez duela baja eman aitortzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da. Zerga ordaintzetik salbuetsita badago, egoera hori egiaztatzen duen eta administrazio eskudunak egindako agiria.

f) Kaudimena egiaztatzeko agiriak:

1. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

1.1. Finantza-erakundeen aitorpen egokiak.

Finantza-erakundearen aitorpen egokia aurkezten bada, agiri honen III. Eranskinean jasotako ereduari jarraituz egingo da.

2.- Kaudimen teknikoa edo profesionala:

SPKL-ren 77.1 artikuluaren arabera, kontratu honek ez du enpresariaren klasifikazioa eskatzen. Halere, bere kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatu ahal izango du obra kontratista moduan ondoren adierazitako talde eta azpi-taldean duen klasifikazioaren arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko Kontratista eta Klasifikatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri baten bidez, Estatuko Klasifikatutako Lizitatzaile eta Enpresen ziurtagiri bidez edota Europar Batasuneko klasifikazioaren bidezko ziurtagiri bidez,, SPKL-ren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera.

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
G	4	1

Edota, kaudimenaren konplimendua egiaztatuz, ondoren adierazten diren baldintzen inguruko agiriak aurkeztuz:

2.1 Azkeneko 5 urtetan kontratuaren xede diren eta lehendik eginda dituen antzeko edo kideko obra nagusien zerrenda, eta horien artean gutxienez hiru obra analogoak izan beharko dira, eta bertan adieraziko dira obra horien zenbatekoa, data eta hartzaile publikoa edo pribatua.

Kontratazio-mahaiak eskatzen badu, egindako hornikuntzak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean. Hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, horrek egindako ziurtagiri baten bitartez egiaztatuko da edo, halakorik ez badago, zerbitzua egingo duela ziurtatuko duen agiriekin batera aurkeztuko den enpresariaren aitorpen baten bitartez. Hala badagokio, agintaritza eskudunak kontratazio-organoari zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri.

2.2 Obra egitera zuzendutako pertsonal era organismo teknikoak zeintzuk izango diren jasoko duen adierazpena, enpresan integratuta egon edo ez, dagokion egiaztagiriekin batera, kontratazio organoaren menpeko zerbitzuek eskatzekotan.

2.3 Obra egitera zuzendutako makineria, material eta talde teknikoa zein izango den jasoko duen adierazpena, dagokion egiaztagiriekin batera, kontratazio organoaren menpeko zerbitzuek eskatzekotan.

2.4 Kontratista enpresa sortu berria bada, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna badu, kaudimen teknikoa 2.1 eta 2.2. puntuetan aipatzen diren bitartekoetako baten edo batzuen bidez egiaztatuko da. Kasu horietan ezingo da aplikatu SPKL-ren 88.1 artikuluko a) atalean xedatutakoa, obra-kopuru jakin bat eginda izateari buruzkoa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen tekniko edo profesionalari buruz adierazitako inguruabarrak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu ahal izango dira, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiriaren bidez, 2017ko SPKLren 96. artikuluan ezarritakoaren arabera.

g) Behin betiko bermea eratu izaren ziurtagiria, honakoa izango da zenbatekoa: eskainitako prezioaren % 5, BEZ sartu gabe.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza baxuegia dela uste bada 2017ko SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako kasuak betetzen direlako, mahaiak 2017ko SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko du, baina lizitatzaileak gehienez 5 egun balioduneko epea baino ez du izango eskaintza justifikatzeko; epea jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasiko da zenbatzen.

16. KLAUSULA. Kontratua esleitzea

Aurreko klausulan aipatutako agiriak aurkezten direnean eta, nahitaezkoa den kasuetan, Kontu-hartzailetzak, azaroaren 26ko 47/2003 Legean, Aurrekontuen Lege Orokorrean, aurreikusita bezala eta gehienez ere bost eguneko epean gastuaren konpromisoa fiskalizatu ondoren, kontratua esleipenduna izateko proposatu den lizitatzaileari esleituko zaio eta behin esleitu ondoren formalizatu egingo da.

Horretarako jarritako epean esleipenduna izateko proposatutako hautagaiak ez baditu eskatutako agiriak aurkezten, puntuazioan bigarren geratu den hautagaiaren aldeko proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio behin betiko bermea eratzeko.

Enpresariak Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste agiriren bat aurkeztu behar izango balu, behin betiko epea aurkezteko ezarritako 7 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du.

Kontratazio-mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio-organoak, bere eginkizuna betetzean, kolusiozko jokaeraren zantzu sendoak hautemango balitu kontratazioaren prozeduran, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikuluan zehaztutako zentzuan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo autonomia erkidegoko agintaritza eskudunari jakinaraziko dizkio kontratua esleitu aurretik, prozedura sumarisimo baten bidez bere erabakia eman dezan. Zantzu horien berri ematearen ondorioa izango da kontratazio-prozedura etetea. Horren berri kontratazio-mahaiak ematen badu, kontratazio-organoari jakinaraziko dio. Araudi bidez arautuko da paragrafo honetan jasotako prozedura.

17. KLAUSULA. Esleipena jakinaraztea

2017ko SPKLren 155. artikuluaren 1. atalean ezarritakoa alde batera utzi gabe, aurreko atalean adierazitako jakinarazpenetan eta publizitatean beharrezko informazioa emango da, interesdunek, hala badagokio, behar adina funtsatutako errekurtsoa aurkeztu ahal izan dezaten esleipenari buruzko erabakiaren aurka. Informazio horretan gutxienez jasoko da:

a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, horien eskaintza atzera botatzeko izan diren arrazoien azalpen laburra.

b) Esleitzeko prozeduratik kanpora utzi diren lizitatzaileei dagokienez, horien eskaintzak ez onartzeko arrazoiak, eta hor sartuko dira, 2017ko SPKLren 126.7 eta 8 artikuluetan jasotako kasuetan, ez dela baliokidea erabakitzeko izan diren arrazoiak edo lanak, hornikuntzak edo zerbitzuak errendimendu-baldintzen edo eskakizun funtzionalen araberakoak ez direla erabakitzeko izan diren arrazoiak; eta lizitatzaileei, esleipenduna barne dela, esleitutako balorazioen banakapena.

c) Beti jasoko dira esleipendunaren izena eta esleipendunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, erabakigarriak izan direnak eskaintza hori eskaintzak onartu zaizkien gainerako lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzen gainetik aukeratzeko.

Jakinarazpenean adieraziko da zein den kontratua 2017ko SPKLren 153. artikuluaren 3. atalaren arabera formalizatzeko epea.

Lizitazio bat ez da esleitu gabe utziko agirian jasotako irizpideei jarraituz onartzeko modukoa den eskaintza edo proposamen bat badago.

18. KLAUSULA. Kontratua burutzea eta formalizatzea

Kontratua burutuko da kontratazio-organoaren esleipenaren bidez, eta dokumentu administratiboan formalizatuko da **hamabost egun balioduneko** epean, esleipena jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita (2017ko SPKLren 153. artikulua).

Esleipendunari egozgarri zaizkion zioak direla eta, kontratua ez bada formaldu aipatu epe barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuko % 3ko kopurua eskatuko zaio, B.E.Z. kanpo, penalidade moduan eta efektiboa egingo da, lehendabizi behin betiko bermearen kontra, jarri izan balitz, SPKLren 150. artikuluaren arabera, kontratatzeko debeku bezala kontsideratzearen kalterik gabe.

Kasu horretan, eskaintzak klasifikaturik geratu diren hurrenkeraren arabera, hurrengo lizitatzailearen alde egingo da kontratuaren esleipena, aurretiazko baldintzen betetzea egiaztatzen dituen frogagirien aldez aurretiazko aurkezpenarekin, emandako epearen barruan.

Kontratuaren formalizazio ezaren zioak Administrazioari egozgarri izatekotan, atzerapenak eragindako kalteengatik indemnizatu beharko zaio kontratistari.

Kontratistak kontratua eskritura publikoan formalizatu ahal izatea eska dezake, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoa egiteak sortutako gastuak.

2017ko SPKLren 154.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, kontratua formalizatu dela gehienez ere hamabost eguneko epean argitaratuko da kontratuarekin batera, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean kontratua burutu ondoren.

19. KLAUSULA. Behin betiko bermea

Kontratuen lizitazioan eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak esleipenaren zenbatekoaren % 5eko bermea eratu beharko du. Esleipenaren zenbatekoa izango da esleipenaren azken prezioa, agiri honetako aurrekontuan zenbatetsitako zenbatekoa, alegia, BEZ sartu gabe, eta bermea 2017ko SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoak erabilita eratuko da.

2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz, bermea ez da itzuliko edo abala edo kauzio-asegurua ez da ezereztuko, harik eta bermealdia amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistaren errurik gabe kontratua bertan behera utzi arte.

Kontratu honetarako bermea urte batekoa izango da, lizitatzaileek hobetu dezaketelarik Plegu hauen 9. atalean jasotako esleipen baldintzen arabera.

Bermearekin 2017ko SPKLren 110. artikuluan jasotako kontzeptuei erantzungo zaie. Kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean ez bada hornikuntza onartzeko egintza formala edo likidazioa egin kontratistari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, itzuli edo ezereztu egingo da bermea, gehiago luzatu gabe, aipatutako 110. artikuluan adierazitako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.

20. KLAUSULA. Behin betiko bermea itzultzea eta ezereztea

Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz itzuliko eta ezereztuko da, betiere kontratu eratorriei dagozkien bermealdiak amaitu badira eta haiei dagozkien betebeharrak behar bezala bete badira.

21. KLAUSULA. Eskaintza baxuegiak

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. Artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak ere.
Edonola ere, eskaintza baxuegiak arautzeko eta horien araubide juridikoa ezartzeko 2017ko SPKLren 149. artikuluan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

22. KLAUSULA. Arriskua eta ausa

Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da, 2017ko SPKLren 197. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

23. KLAUSULA. Kontratistari ordaintzea

Esleipendunak eskubidea izango du benetan exekutatu diren eta Administrazioak ondo jaso dituen obren prezioaren ordainketa jasotzeko, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

Ordainketa faktura bidez egingo da, obra zuzendaritzak onartutako dagokion obra ziurtagiriaz lagundua joan behar duelarik. Faktura indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da, eta behar bezala osatuko du lana jasotzen duen unitateak edo, hala badagokio, kontratuaren arduradun izendatu denak.

SPKL-ren 210.4 eta 243.1 artikuluek diotenaren kalterik gabe, Udalak Obra-ziurtagiriak eta fakturak onartu beharko ditu, obra zuzendaritzaren oniritzia jaso eta hogeita hamar eguneko epean.

Edonola ere, kontratistak ez badu faktura dagokion administrazio-erregistroan eta faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen arautegian ezarritakoari jarraituz aurkezteko hogeita hamar eguneko epea betetzen, interesak ez dira sortuko, Administrazioak adostasuna eman eta dagokion ordainketa egin gabe, faktura behar bezala aurkezten den egunetik zenbatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epea igaro arte.

Ordainketa lau hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak eten egin dezake kontratua; baina Administrazioari jakinarazi behar dio, hilabete lehenago, etenaldi horretatik sor daitezkeen eskubideak onartuak izan daitezen 2017ko SPKLan ezarritakoaren arabera.

Administrazioa sei hilabetetik gora berandutzen bada, kontratistak kontratua ezeztatzeko eskubidea ere izango du, baita horren ondorioz sortutako galeren kalte-ordainak jasotzekoa ere.

24. KLAUSULA. Kontratua aldatzea

Kontratazio-organoak kontratuan aldaketak egitea erabaki dezake, behin kontratua burutu ondoren eta interes publikoko arrazoiak direla medio, 2017ko SPKLan kontratistaren ondorengotza, kontratuaren kontzesioa, prezioak berrikustea eta kontratua gauzatzeko epea luzatzea dela-eta aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe. Kontratu administratiboak interes publikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira, 2017ko SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako kasuetan eta moduan, 2017ko SPKLren 191. artikuluan araututako prozedurari jarraituz eta 2017ko SPKLren 207. artikuluan adierazitako mugekin.

25. KLAUSULA. Kontratua etetea

Udalak kontratua etetea erabaki ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik. Era berean, kontratua etengo du 2017ko SPKLren 208. artikuluan adierazitako egoera gertatzen bada.

Kontratua etetearen ondorioak 2017ko SPKLren 208. artikuluak eta bat datozen APKLAOko arauek arautuko dituzte.

26. KLAUSULA. Kontratua lagatzea eta azpikontratatzea

Kontratu hau lagako da 2017ko SPKLren 214. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta, edonola ere, honako baldintzak bete beharko dira:

a) Kontratazio-organoak aldez aurretik eta berariaz eman beharko du lagapena egiteko baimena. Baimena emango da hurrengo ataletan aurreikusitako baldintzak betetzen badira. Baimena emateari buruzko erabakia jakinarazteko bi hilabete izango dira, eta epe hori amaitzen denean administrazio-isiltasunaz emantzat hartuko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren 100eko 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, edo kontratuaren iraupen-epearen bosten bateko aldian ustiatu behar izan du. Baldintza hau ez da ezarri ahal izango kontratista konkurtsoan dagoela egin bada lagapena, nahiz eta likidazio fasea hasita egon; edo konkurtsopean deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazten badio birfinantzatzeko akordio batera iristeko edo hitzarmen-proposamen aurreratuari atxikimenduak lortzeko negozioazioetan ari dela, konkurtso-legedian ezarritakoari jarraituz.

c) Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, kontratuaren fasean eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez du kontratatzeko debekurik izan behar.

d) Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

Kontratu honetan azpikontratazioa 2017ko SPKLren 215. artikuluak arautuko du, eta, edonola ere, baldintza hauek bete behar ditu:

Lizitatzaileek kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta kontratuaren zati hori gauzatzeko ardura eman zaien azpikontratisten izena edo enpresari-profila ere eman behar dute, gaitasun profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztuta.

Edonola ere, kontratistak, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenera jota ere, kontratua gauzatzen hasten denean, idatziz jakinarazi behar dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta

azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak zehaztuko ditu. Era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatu beharko du, bere elementu teknikoei, giza baliabideei eta esperientziari erreferentzia eginez, 2017ko SPKLren 71. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela ere egiaztatu beharko du.

Kontratista nagusiak idatziz emango dio kontratazio-organoari kontratu nagusia betetzen den bitartean informazio horretan izaten den edozein aldaketaren eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztiaren berri.

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, horren berri ematea nahikoa izango da haren gaitasuna justifikatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Lizitatzaileak bere eskaintzan jakinarazi beharko ditu azpikontratatu nahi duen kontratuaren zatiari buruzko inguruabarrak, eta eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak –eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egin direlako, edo eskaintzan adierazitako prestazioaren atalari buruzkoak izan ordez beste atal batzuei buruzkoak direlako– ezin izango dira egin harik eta jakinarazpena egiten denetik eta 2017ko SPKLren 215. artikuluan adierazitako egiaztagiriak aurkezten direnetik hogei egun igarotzen diren arte, nola eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta, betiere, Administrazioak ez badu, epe horren barruan, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratistak, eskaintzan, lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

Hogei eguneko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aldera baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, administrazioarekiko erantzukizun osoa, kontratua administrazio-klausula zehatzen agiriari edo deskripzio-agiriari eta kontratuko baldintzei estu-estu lotuta gauzatzeko, 2017ko SPKLren 201. artikuluan ezarritako ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak barne direla.

Administrazioak egin diren azpikontratuen berri izateak –2017ko SPKLren 215. artikuluan adierazitako komunikazioak direla bide– edo 2017ko SPKLren 215. artikuluan ezarritako kasuan emandako baimenak ez dute eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun esklusiboan.

Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratuaren zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo 71. artikuluan jasotako egoeretako batean dauden pertsonekin.

Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-legeriaren arabera.

2017ko SPKLren 51. xedapen gehigarrian ezarritakoa alde batera utzi gabe, azpikontratistek ez dute Administrazio kontratatzailearen aurrean erantzukizun zuzenik izango kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzea dela-eta kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

Kontratistak azpikontrataziorako baldintzak urratzen baditu, azpikontratuaren zenbatekoaren %50eko penalitatea ezarriko zaio.

27. KLAUSULA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak

Kontratua gauzatuko da kontratuaren klausulei estu-estu lotuta, eta kontratuaren interpretazioa eginez Udalak kontratistari emandako jarraibideekin bat etorriz.

Obrak jasotzean egoera egokian ez badaude, harrera-aktan adieraziko da eta kontratistari jarraibide zehatzak emango zaizkio ikusitako akatsak konpontzeko.

Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, iragarkiak –Aldizkari Ofizialetakoak, egunkari ofizialetakoak edo edozein hedabidetakoak–, kontratua formalizatzeko gastuak eskritura publikoa egitea eskatzen den kasuetan, bai eta hornituko diren ondasunak behar bezala gauzatzeko eta entregatzeko behar diren lizentziak eta baimenak ere.

Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko egingo dituen gastu guztiak: orokorrak, finantzarioak, aseguruenak, materialenak eta instalazioenak, bere kargura dauden langileen ordainsariak, egiaztapenak eta entseguak egiteak eragindakoak, tasak, bai eta era guztietako zergak, BEZa, eta jarduera gauzatzeagatik dagozkion zergak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratu indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebehar guztiak.

Zenbait kontzepturi ezarritako era guztietako zergak eragin guztietarako lizitatzaileek aurkezten dituzten eskaintzetan nahiz esleipen-proposamenetan sartuta daudela ulertuko da.

Halabaina, eskaintza ekonomikoan aparteko kontu-sail gisa adieraziko da balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) zenbatekoa.

Kontratu honek bete beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

Lizitatzaileek, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran Gipuzkoako eraikuntzako Hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko dute.

Halaber, eskatzen den informazio guztia ematera behartuta egongo dira, behin kontratua esleitu eta gero, langileeei benetan aplikatuko zainkien lan-baldintzei buruz.

Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.
Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa hartuko dira, eta ezbetetzeak kontratua suntsitzea ekar dezake.

Hizkuntz irizpideak:

1.- Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan.

2 .- Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

3.- Administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da oro har kontratuaren ondorioz sortzen diren harremanetan:

> a) Ahozko harremana euskaraz izango da. Kontratatukako enpresan euskara maila egokia duen pertsonarik ez badago, enpresak bitartekoak edo hizkuntza gaitasun nahikoa duten pertsona egokiak jarri beharko ditu administrazioarekin harremanak euskaraz izateko.

b) Idatziak euskaraz eta gazteleraz idatziko dira, bi alderdiek euskaraz izatea aukeratzen badute, euskaraz bakarrik.

28. KLAUSULA. Kontratua behar bezala ez betetzea edo atzerapena kontratua betetzean.

1.- <u>Behar bezala ez betetzea</u>:

Hauxe izango da kontratua behar bezala ez betetzea:

a) Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik administrazio-agirian ezarritako baldintzak ez betetzea, kontratua bertan behera uzteko arrazoiak ez direnean.

a) atalean zehaztutako egintzak, gehienez kontratuaren prezioaren %10-eko penalitateen ezarrera eragingo du, B.E.Z. kanpo.

Ez betetzea errepikatzen bada, kontuan izango da larritasuna baloratzeko.

2.- <u>Atzerapena kontratua betetzean</u>:

Kasu hauetan honako zigorra ezarriko da: atzeratzen den egun bakoitzeko kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euro, BEZ sartu gabe.

Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Eskabidearen zati bat entregatzean atzeratuz gero, zigorra eskabidearen balioaren araberakoa izango da, BEZ sartu gabe.

Zigorrak ezarri ahal izango dira kontratua jaso aurretik edo ondoren, eta bigarren kasuan atzeratutako egun-kopurua izango da kontratuaren jatorrizko epearen (gehi Udalak onartutako luzapenaren) eta kontratua gauzatzeko benetako epearen arteko diferentzia, kontratuaren azken eguna harrera-aktakoa izango dela kontuan hartuta.

Kontratistak, kontratua gauzatzeko epearen barruan, kontratua gauzatzeko epe hori luzatzea eskatu ahal izango du baldin eta bere ustez atzerapenaren arrazoiak ezin bazaizkio berari egotzi eta Administrazioaren ekintzen edo omisioen edo ezinbesteko arrazoiren baten ondorio bada.

Kontratistak ez badu kontratua betetzeko epea luzatzeko eskatzen, egokituko litzaiokeen eskubide horri uko egin diola ulertuko da.

29. KLAUSULA. Kontratua ezeztatzea

Kontratua ezeztatzeko arrazoiak izango dira 2017ko SPKLren 211. artikuluan jasotakoak, bai eta honakoak ere (2017ko SPKLren 245. art.):

a) Zuinketa egiaztapena egiteko justifikaziorik gabeko atzerapena.
b) Obrak hasteko epea lau hilabete baino gehiago atzeratzea.
c) Obrak etetea zortzi hilabete baino gehiagoko epean, Udalari egozgarri zaionean.
d) Uko egitea.

30. KLAUSULA. Jurisdikzioa

Kontratua garatzen den bitartean sortzen diren zalantzak kontratazio-organoak argituko ditu. Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioaren aurrean inpugnatu ahal izango dira.

Eginbidea.- Elduaingo Udalaren Erreformarako Egikaritze Proiektuaren bigarren separatako obrak kontratatzeko baldintza administratibo berezien agiri hau osoko bilkurak onartu zuen, 2023ko ekainaren 22an egindako ezohiko bilkuran, eta 20 orrialde ditu.

Elduainen, 2023ko uztailaren 4an.

Idazkari-kontuhartzailea,
Maria Pilar Garmendia Miguel.

GARMENDIA MIGUEL MARIA PILAR - 72574128C

Firmado digitalmente por GARMENDIA MIGUEL MARIA PILAR - 72574128C
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, serialNumber=IDCES-72574128C, givenName=MARIA PILAR, sn=GARMENDIA MIGUEL, cn=GARMENDIA MIGUEL MARIA PILAR - 72574128C
Fecha: 2023.07.04 13:33:29 +02'00'

Elduaingo Udala
Gipuzkoa

I. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

KONTRATUAREN IZENA: *ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ BER ZOLAZTATZEKO OBRAK*

ENPRESA

IZENA	IFK
HELBIDEA	

TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA

ORDEZKARIA

IZENA	NAN

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

Betetzen dituela 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140 artikuluaren 1. atalean ezarritako aldez aurreko baldintza guztiak obra-kontratuaren esleipenduna izateko. Zehazki hauek:

- Nortasun juridikoa eta, hala badagokio, ordezkaritza dituela.
- Hala badagokio, enpresa behar bezala sailkatuta dagoela edo kaudimen ekonomikoari, finantzarioari eta teknikoari edo profesionalari dagozkien baldintzak betetzen dituela.
- Ez duela azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen, 71. artikuluan kontratatzeko jasotako debekurik, eta indarrean dauden legeek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzean egunean dagoela.

Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren eskumenaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, eta lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko eskumen-foruari uko eginda, hala badagokio. (Atzerriko enpresen kasuan bakarrik):

Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honakoa da: _____

Lizitatzailearen sinadura

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

____ jaun/andreak, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa ____ eta NANa ____ duenak, Berastegiko Udalaren kontratatzailearen profilean ____ egunean iragarritako eta prozedura ireki sinplifikatuaren bidez egingo den "**ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ BER ZOLAZTATZEKO OBRAK**" kontratu administratiboan interesa duen eta NAN ____ duen ____ (r)en izenean (edo bere izenean), adierazten dut ezagutzen dudala kontratu hau arautzen duen Baldintza Administratiboen Agiria, eta osorik ontzat ematen dudala. Eta lizitazioan parte hartuko dut eta kontratuaren xedea gauzatuko dut ____ €an, eta balio erantsiaren gaineko zerga ____€ izango lirateke, _____ urteko berme-epearekin.

Zenbateko horretan sartuta daude aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta kontratua arautzen duen Baldintza Administratibo Zehatzen Agirian jasotako gastu guztiak ere.

Berastegiko Udalarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen ditut, eta, bereziki, hitzematen dut prestazioa behar bezala gauzatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material atxikiko dizkiodala kontratuari.

____ (e)n, ____ (e)ko ____ ren ____(e)an.

Lizitatzailearen sinadura.»

III. ERANSKINA. FINANTZA ERAKUNDEEN AITORPEN EREDUA

____ erakundeak *(finantza-erakundearen izena)* IFZ ____ eta helbidea ____ duenak, eta bere izenean, ____ (e)k *(ahalordedunen izen-abizenak)*, egintza honetan zehaztutako eginbeharrak betetzeko behar besteko ahalmena dutenek

JAKINARAZTEN DUTE

____ (*pertsona fisikoaren izen-abizenak edo pertsona juridikoaren izen soziala)*, IFZ ____ eta helbidea ____ ____ duena, finantza-erakunde honen bezeroa dela.

Erakunde honen esku dauden aurrekarien arabera, aipatutako lizitatzaileak behar besteko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa duela **ELDUAINGO HERRI BIDEAK ASFALTOZ BER ZOLAZTATZEKO OBRAK** egiteko; aurrekontu osoa 65.822,93 €koa da, BEZ sartu gabe.

Eta horrela jasota gera dadin eta behar den lekuan dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut ____ (e)n, ____ (e)ko ____ren ____(e)an.

(Finantza-erakundearen sinadura eta zigilua).»